

EU8KADI - HISTORIA
ETA KONPLEJUAK

Azken urtcotan Euskal Herriaren historiaren argitarapenak asko ugaritu dira, eta batzuk liburu marduletan biltzen dute Euskal historiaren haria. Izan bitez ongi etorriak! Eta gehiago sortuko diren ustetan geratzen gara.

- Editorial hau ez da kritika sakonik egiteko abagadunea, baina bai historilarien eta Herriaren kontzientzi-atarian aupadatxo bat egiteko.

Historia hauek zientziaren arabera eta egiari iruzur egin gabe moldatutakoak ote dira? Batzuk argi eta garbi esan behar ezetz, histori-parodia baino ez baitira; hauen egileek, berriz, ez dute benetako historilari izenik merezi, ideologi berezien aldarrikatzaile soil bihurtzen direlarik.

Baina gure historilaririk gehienengan zer edo zer badago, edo eta hobeki esan, zerbait falta da. Haietariko askoren lanetan, benetako sustraian, herri sustraian, errealitatea gorpuztu ohi duten historieroen falta somatzen dut nik. Beren-beregi horrelaxe eginda? Ezetz esango nuke. Dokumentu, agiririk eza eta ez jakintasuna? Kasu batzutan bai. Ala zenbait konplejuren eraginez ote dabilta haien buru-esku-lumak? Hortxe egon daiteke ka-koa...

Euskal Herriaren benetako historiarik ezin idatz daiteke

kristau historia gogotan izan gabe, mende luzeetan zehar kristautasuna herriaren eragile aparta izan baita. Eta hori, bai egunero bizitzan eta baita ohitura eta pentsamoldeetan ere. Euskadiren historian kristau gizon-emakumeen indarra bizi-bizi ageri da. Ez dago Euskal Herriaren historia onik egiterik kristautasunaren osagai garrantzitsu hori sartzen ez bada; gezurrezko ikuspegia ematea litzateke.

Ezjakintasuna ala konplejuak? Ez al dugu, bada, egia ezagutzea nam? Benetako historia? Euskal bizitzaren egiazko ikuspegia, mozketarik gabekoa? Herriaren amasa? Hortaz zergaitik sustrai guztien bila ibili ez? Zer dela eta ez-ikusi egin, ez-jakinarena egin errealitatearen aurrean? Norbaitzuk, politika arrazoiengatik, kristautasun aide hori oso-osoan baztertu dute Euskal historiari, sasi-histonak (istorioak) edo historiaren parodia merkeak burutuz.

Elizaren aldeko izan nahiz ez izan, berdin da; mendeetan zehar eginez datorren histori-haria hor dago! Eginda dago; zati bat eginik eta beste eginez-eginez. Egindakoa oso-osoan sartu beharra historiak berak eskatzen duen leialtasunari zor diogu.

Ezjakintasuna, konplejuak?

Beste adibide bat jarriko dut: azken 20 urteotako Euskal historia, konforme egon nahiz ez egon, ezin daiteke EAJ edo ETA edo HB kontutan izan gabe idatzi; era berean, kirolak eta futbola batez ere baztertzerik ez dago, milaka eta milaka giza-emakumeren bizitzak horren arabera dantzatzen direlako; lanik eza eta beste zenbait arazo ere oso gogoan izatekoak dira, historian kolore berezia ematen diotelako, etab.

Guzti hauen gaihetik kristautasuna dagoela ezin uka. Milaka eta milaka egunero, astero eta urtero euren bizitzari norabide markatzen dien kristautasunaren eraginez bizi direlarik, hori kontutan izan ez? Ba al da inon manifestazio orokorragorik, handiagorik egunero eta astero kristauak elizan eta elizatik kanpo egin ohi dutena baino? Ezer izatekotan, adierazpide horiek herrikoiak, biziak eta pertsonaren arima-arimatik irtendakoak

dira. Zer da, bada, historia? Ba al da ihon politika-alderdirik, kultura-alkarterik nahiz kirol-erakunderik Elizak baino gizon-emakume gehiago biltzen duenik?

Begia ireki, ikusi, herri-bizitzaren adierazpenak hartu eta ausnartu! Ken ditzagun konplejuak! Egiaren sustraiak bila ditzagun dauden tokian, gure gogoko izan nahiz ez izan. Horixe da egiari eta historiari diogun zorra.

«OLERTI EGUNA»

Ogetaseigarren urtea. Ixil-ixilka, baina langille beti. Aurten be Olerti-Eguna ospatuko dogu, J.l. Noiz? Igaz erabagi zanez, datorren urriaren 12^aan zapatuz. Jaia da. Nor omendu? Arrasate-Beitia.

Iru arlo betikoak: 1) *Lirika*, 25.000 pezetako saria; 2) *Poema*, 15.000 pezetako saria; 3) *Bertso-txorta*, 10.000 pezetako saria.

Lanak bialtzeko epea: abuztuaren 25. Zuzenbidea: Aita Onaindia, Amorebieta-Larrea. Karta txiki barruan jar eizuz; Izena, abizena ta zuzenbidea.